

Eta umeek zinegotzien lekuak hartu zituzten...

GUK edo Gordexolako Umeen Kontseilua abian da, bai. Egin genituen zozketak eta badakigu nortzuk diren: Aitor, Mikel, Alazne, Miriam, Oihan, Unax, Amaia, Ninbe, Omar, Naia, Saul eta Aiala. Gordexolako 12 ume hauek osatuta, umeen begirada Gordexolako herrigintzara ekartzea du helburu lantalde honek. 2018ko urtarrilaren 31n ospatu du bere lehen bilera, hasi dira ume hauek euren herria hausnartzen, euren ikuspuntuak partekatzen... Ekaina bitartean hilean behin arituko dira elkarlanean.

Eskolatik liburutegiko egoitzara etorrita, aulkiak zirkuluan, bertan eseri gara guztiok. Elkar ezagutzea eta talde giroa sortzea helburu, zenbait dinamika eta solasaldi izan ditugu, nork bere burua (eta aldameneko laguna) taldeari aurkeztuz. Barre mordoa egin dugu eta konfidantzazko giroan burutu dugu lehen saio hau.

Umeen Kontseilua zertan datzan ere komentatu dugu. Alkateari aholku ematen dion eta herriarentzako lan egiten duen 9 eta 12 urte bitarteko pertsonen lantaldea da. Umeen Kontseiluan parte hartzen duten umeek euren iritzi, ikuspuntu eta desioak Alkatearekin partekatzen dituzte, eta erabakiak hartzen laguntzen diote, haren ikuspuntua aberastu eta haurren begiradatik ikas dezan bere udal ardurari dagokionean. Umeen Kontseiluak umeen pausura lan egiten du, umeen begirada gure herrian pausatuz, haien ikuspuntuekin gure ohiturak zalantzan jarriz, herria arakatuz: non egoten diren gustoren, nola erabiltzen duten herria, zer egitea maite duten non... herria eraikitzen, herria bere egiten.

Udaletxea ezagutzera abiatu gara gero, bertan hitzordua baikenuen Angela Eguía alkate anderearekin. Berak erakutsi dizkigu Udaletxeko gela desberdinak eta bertako langileak aurkeztu: Mari Carmen eta Maite harreran, eta Cristina, Ramon eta Itziar bulegoan. Susana idazkaria justu gaur ez zegoen. Umeek galdera pila egiteko aukera izan dute. Jakin ahal izan dugu, adibidez, pinuak oso garrantzitsuak direla Gordexolaren ekonomiarentzat. Edo udalekuetako aurrekontua ikusi ahal izan dugu, dirulaguntzak barne, eta umei dirutza ikaragarria iruditu zaie.

Osoko Aretoan elkartu gara, udal plenoak ospatzen direnean zinegotzien eserleku diren horietan. Alkateak azaldu digu zinegotzi bakoitza non eseritzen den, baita paretatan dauden herriko aurreko alkateen argazkiak erakutsi ere. Kontatu digu ere, bertan dagoela, ikurrinaz gain, Gordexolako ikurrina gorri-berdea, nahiko berriki lehiaketa publiko bidez aukeratu zena. Bertan agertzen den armarrria ez da herriko armarrria (plazan harrian -Athleticen basurdearen ondoan- dagoena), baina erdian ageri duen gurutze zuria bai da armarrrikoa. Halako kontuak. Azkenik, artxibategia ere ikusi dugu, dokumentu garrantzitsuenak suteetatik babesten dituen kutxa gotorra barne. Ohartu orduko eskolara bueltatzeko ordua zen. Otsailaren 27an hurrengo!

* Link honetan ikus ditzakezue lehen bilera honetako argazki guztiak: [GUK argazkiak](https://www.flickr.com/photos/162735608@N08/sets/72157690250853632)
(<https://www.flickr.com/photos/162735608@N08/sets/72157690250853632>).